DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Proiektu eta Obrak
Larramendi, 16 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Tokiko Gobernu Batzarra
Junta de Gobierno Local
TGB akordioa
Acuerdo de JGL
2025/04/08
Zinegotzi idazkaria / Concejal-a secretario-a
Miren Nekane Arzallus Iturriza

2023/106 esp.

ADMINISTRAZIO BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK, OLAETA ETA ARMERIA PLAZAK BERRURBANIZATZEKO PROIEKTUA IDAZTEA BIM TEKNOLOGIAREN BIDEZ ETA HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROZESUAREKIN KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUTENAK

PLIEGO DE CLAUSULAS TÉCNICAS A REGIR EN LA CONTRATACIÓN MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA REDACCIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN DE LA REURBANIZACIÓN DE LAS PLAZAS FERRERÍAS Y ARMERÍAS MEDIANTE TECNOLOGIA BIM Y PROCESO DE PARTICIPACION CIUDADANA

I. KONTRATUAREN OBJEKTUA

Prozedura irekiaren bidez erabakitzen den adjudikazioaren objektua izango da Olaeta eta Armeria plazak berrurbanizatzeko proiektua idaztea, BIM teknologiaren bidez, bai eta herritarren parte hartzeko prozesuarekin zerikusia duten zereginak eta baldintzak zehaztea ere. Bi atal horiek xede edo objektu bakarra osatuko dute proiektuaren zerbitzura.

Era berean, kontratuaren objektuaren barnean egongo da, dokumentazioa lantzeaz gain, hura edozein organo eskuduni aurkeztea eta haren jarraipena egitea, aipatutako proiektuaren inguruan, edozein erakunde edo konpainia hornitzaileren beharrezko baimenak lortzeko.

I. OBJETO DEL CONTRATO

La adjudicación que mediante procedimiento abierto se acuerde, tendrá por objeto la redacción del proyecto de ejecución de la reurbanización de las plazas Ferrerías y Armerías mediante tecnología BIM y aquellas tareas que tienen que ver con la celebración de la participación ciudadana, componiendo ambas un objeto único al servicio del Proyecto.

Igualmente quedará incluida en el objeto del contrato, además de la elaboración de la documentación, su presentación y seguimiento ante cualesquiera órganos competentes para la obtención de los permisos necesarios de cualquier organismo y/o compañías suministradoras en relación con el proyecto de referencia.

II. PARTE HARTZEKO PROZESUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Kontratu honen xedearen barruan, herritarrek azken dokumentua egiteko prozeduran parte hartzeko prozesu bat gauzatzeko zenbait prestazio sartzen dira. Dokumentu horretan Olaeta eta Armeria plazak berrurbanizatzeko obren proiektua jasoko da.

Parte hartzeko prozesuaren lehentasunezko helburua da, azterketa teknikoarekin batera, herritarrek beren ekarpenak egin ahal izatea, eta horren bidez proiektuan eragina izateko gaitasuna izatea.

Modu bateratu eta harmonizatuan, herritarren jakintzaren eta jakintza teknikoaren arteko elkarrizketa ahalbidetu beharko du lan-prozesuak, eta proiektuaren definizioan egiten diren aurrerapenak elkar elikatu beharko ditu, bai alderdi diagnostikoan, bai problematika eta

II. CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS DEL PROCESO PARTICIPATIVO

Dentro del objeto del presente contrato se incluyen una serie de prestaciones dirigidas a la materialización de un proceso participativo de la ciudadanía en el procedimiento de elaboración del documento final en el que se recogerá el "Proyecto de obras de la reurbanización de las plazas Ferrería y Armerías".

El objetivo prioritario del proceso participativo es que, en convivencia con el análisis técnico, la ciudadanía pueda hacer llegar sus aportaciones al proyecto con capacidad de influencia.

De manera unifica y armonizada, el proceso de trabajo deberá posibilitar el diálogo entre el saber ciudadano y el saber técnico, alimentando mutuamente los avances en la definición del proyecto, tanto en la parte diagnóstica, como en el

aukeren azterketan, bai irtenbideen formulazioan.

Lan horiei ekiteko, ezinbestekoa izango da erredakzio taldeak udal arduradunekin lankidetza estuan lan egitea. Horretarako, honako hauek beharko dira gutxienez:

- Barne bilera bat diagnostiko fasean, erredakzio taldearen eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren artean, Proiektu eta Obra Sailarekin batera.
- Proposamen fasean, barne bilera bat erredakzio taldearen eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren artean, Proiektu eta Obra Sailarekin batera.

Proposatutako irtenbideen artean, irtenbideak egokiak diren egiaztatzeko aukera emango duten ekintza pilotuak detektatu eta proposatuko dira, hala badagokio.

Horri dagokionez, prozesuaren plangintzan berariazko ariketa bat sartu beharko da, proposatutako konponbideak lehenesteko ariketarekin bat etor daitekeena.

Jendeak proposatuko ditu zenbait gauza plazan egitea. Galdetu beharko zaie ea hauetatik baten bat merezi ote izango duen "probatzea", hau da, neurriaren prototipo bat egitea probatzeko ea egokia den nahi den hortarako.

Parte hartzeko prozesuaren zerbitzura dagoen ezagutza teknikoak inspiratzailea izan beharko du, beste leku batzuetan arrakastaz ezartzen ari diren konponbideen joerak erakutsi beharko ditu, eta planteatzen diren konponbideen eragina baloratzen lagundu beharko die herritarrei.

Lan-prozesuaren helburua, berez, komunitatea sortzea izango da, herritarren eta elkarteen arteko harremanak hobetzen lagunduz, baita eta herritarren errotzea ere, horrela, etorkizunean auzotarrak espazioaren zati gisa senti daitezen eta espazioa beren bizitzaren zati gisa senti dezaten.

Parte hartzeko prozesuak lanerako gune irekiak eskaini beharko ditu, eta kontuan hartu beharko du pertsona antolatuen (elkarteak eta kolektiboak) eta herritar ez-antolatuen parte-hartzea. Horri dagokionez, ekintza irekiaren kontzeptuan honako hauek egingo dira gutxienez:

- aurrez aurreko bilera ireki bat, inikatiba eta

análisis de las problemáticas y oportunidades y en la formulación de las soluciones.

Para abordar estos trabajos, será imprescindible que el equipo redactor trabaje en estrecha colaboración con los responsables municipales. A este respecto serán necesarias como mínimo:

- una reunión interna en la fase de diagnóstico, entre el equipo redactor y el servicio de Participación Ciudadana junto al departamento de Proyectos y Obras.
- una reunión interna en la fase propositiva, entre el equipo redactor y el servicio de Participación Ciudadana junto al departamento de Proyectos y Obras.

Entre las soluciones propuestas, se detectarán y propondrán si procede, posibles acciones piloto que permitan testar el acierto de las soluciones.

A este respecto deberá incluirse en la planificación del proceso un ejercicio explicito que puede coincidir con el ejercicio de priorización de las soluciones propuestas.

La gente propondrá hacer algunas cosas en la plaza. Habrá que preguntarles si alguna de ellas merecería la pena probar que es un prototipo de medida adecuado para lo que se pretende.

El conocimiento técnico al servicio del proceso participativo deberá resultar inspirador, ilustrar con tendencias de soluciones que se estén implantando con éxito en otros lugares y ayudar a la ciudadanía a valorar el impacto de las soluciones que se planteen.

El proceso de trabajo en sí mismo tendrá como objetivo además, la generación de comunidad contribuyendo a la mejora de relaciones entre la ciudadanía y asociaciones y a la creación de arraigo, propiciando que en el futuro la vecindad se sienta parte del espacio y sienta el espacio como parte de sus vidas.

El proceso participativo deberá asegurar espacios abiertos de trabajo y considerar la participación tanto de personas organizadas (asociaciones y colectivos), como de ciudadanía no organizada por canales diversos. A este respecto, en concepto de acción abierta, se realizarán como mínimo:

partaidetza-prozesua aurkezteko.

• aurrez aurreko ekitaldi ireki bat, diagnostikoa eraikitzeko helburuarekin.

• bi ekintza presentzial ireki, proposamenetan sormenez lan egiteko.

• aurrez aurreko bilera bat, sortze-prozesuaren amaierara irekia

• prozesuaren emaitza itzultzeko eta gizarteratzeko aurrez aurreko bilera ireki bat.

• diagnostikoari egindako ekarpenak jasotzeko online ekintza bat

• proposamenak jasotzeko online ekintza bat.

• proiektua gizarteratzeko online ekintza bat

- una reunión presencial abierta de presentación de la inicativa y el proceso participativo.
- un acto presencial abierto con el objetivo de construir el diagnóstico.
- dos actos presenciales abiertos con el objetivo de trabajar creativamente en las propuesta.
- una reunión presencial abierta al cierre del proceso creativo
- una reunión presencial abierta de devolución y socialización del resultado del proceso.
- una acción on line de recogida de aportaciones al diagnóstico
- una acción on line de recogida de propuestas.
- una acción on line de socialización del proyecto

Online, aurrez aurreko, posta bidezko edo telefono bidezko ekintzak atzeraelikatu egin beharko dira.

Las acciones on line, presenciales, postales o telefónicas deberán retroalimentarse.

Bilera irekiei generoaren, adinaren eta jatorriaren sektorekako irakurketei lotutako lan eremu mugatuak gehituko zaizkie.

A las reuniones abiertas se sumarán espacios de trabajo restringidos vinculados a lecturas sectoriales de género, edad y origen.

Parte-hartzearen subjektuei dagokienez, kolektiboak bilatzeko estrategiak izan beharko ditu prozesuak, honako hauek kontuan hartuta: zaurgarritasuna, jatorriaren, adinaren, generoaren eta abarren aniztasuna; era berean, Amara Berri auzoko lurralde- edo sektore-izaerako elkarteen parte-hartzea sustatuko du, eta eremuan edo ingurunean jarduten duten eragileak ere kontuan hartuko ditu eta emakumeen eta gizonen parte-hartze paritarioa sustatuko du.

En cuanto a los sujetos de la participación, el proceso deberá contar con estrategias de búsqueda de colectivos en clave de: vulnerabilidad, diversidad de origen, de edad, de género etc. propiciará la participación de las asociaciones de carácter territorial o sectorial del barrio de Amara Berri y contará con los agentes con actividad en el ámbito o el entorno y promoverá una participación paritaria entre mujeres y hombres.

Adjudikaziodunari dagokio, ohiko moduan, komunikazio-estrategiak, -elementuak eta -euskarriak asmatzea, bai deialdiak egiteko, bai tarteko lanen feedbacka egiteko eta azken emaitzen kontu emateko, eta Udalaren kontura, horiek gauzatzea. Komunikazioaren estrategia, ekintza guztiak eta horien plangintza komunikazio plan batean jaso beharko dira.

Recae sobre el adjudicatario la ideación de las estrategias, elementos y soportes de comunicación, tanto para las convocatorias, como para el feed back de los trabajos intermedios y las devoluciones de los resultados finales y por cuenta del ayuntamiento la materialización de las mismas. La estrategía de la comunicación, el conjunto de acciones y su planificación, deberán recogerse en un "Plan de comunicación".

Tailerren, megafoniaren, altzarien eta abarren logistika eta horiek egiten diren espazioak erreserbatzeko kudeaketak egitea Udalaren

La logística de los talleres, megafonía, mobiliario etc, como la gestión de reservas de los espacios en los que se celebren será responsabilidad del

ardura izango da.

Parte hartzeko prozesu osoa, komunikazioa barne, asteko plangintza dokumentu batean jaso beharko da, eta talde teknikoak partaidetza lanaren emaitzak prozesatzeko behar dituen faseekin egokituko da.

Azkenik, parte hartzeko prozesuaren elementu guztiak, emaitzak eta finkatutako helburuekiko duen eragina memoria irisgarri eta ulergarri batean jaso beharko dira.

Parte-hartze prozesuan erabiliko diren dokumentu, euskarri eta komunikazio guztiak, ahoz zein idatziz, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarari lehentasuna emanez; eta herritarrei bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatuko zaie.

Ayuntamiento.

El proceso de participación completo, incluida la comunicación, deberá recogerse en un documento de planificación semanal que se acompasará con las fases en las que el equipo técnico necesite para procesar los resultados del trabajo participativo.

Finalmente, sera necesario recoger en una Memoria accesible y comprensible, todos los elementos del proceso de participación, los resultados y el impacto del mismo con respecto a los objetivos fijados

Todos los documentos, soportes y comunicaciones que se utilicen o realicen en el proceso participativo, tanto oralmente como por escrito, se realizarán en euskera y castellano, dando prioridad al euskera. Asimismo, se garantizará a la ciudadanía el uso cualquiera de las dos lenguas oficiales.

III. EXEKUZIO-PROIEKTUAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Definitutako jarduketa-eremuari dagozkion obrak izapidetzeko eta garatzeko behar den dokumentazio guztia bildu beharko du berrurbanizazio-proiektuak, horrelako jarduketa-motarako indarrean dagoen legeria betez.

1.- EZAUGARRIAK

Egungo egoera

Egungo egoerari buruzko informazioa eman beharko du proiektuak. Informazio hori Udalaren oinarri topografikoarekin osatu beharko da, edo topografia zehatzagoa behar izanez gero, Udalak beharrezko lan topografikoa kontratatzeko alderdiak zehaztu beharko dira.

Beharrezko dokumentazioa osatuko da, dauden azpiegitura-zerbitzuen deskribapenarekin.

Gaur egungo landare-elementuen azterketa osoa egingo da, zuhaitz eta landaredi-eremu guztien inbentarioa (zuhaitz-taldeak, zuhaiztiak edo landaredi-habitatak) eta horien kokapena jasotzen duen plano topografikoa barne. Zuhaitz eta

III. CARACTERISTICAS TÉCNICAS DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN

El Proyecto de reurbanización deberá contener toda la documentación necesaria para tramitar y desarrollar las obras correspondientes al ámbito de actuación definido, cumpliendo la legislación vigente en este tipo de actuaciones.

1.- CARACTERÍSTICAS

Estado actual

Deberá aportar la información sobre el estado actual, confeccionando dicha información con la base topográfica existente del Ayuntamiento o en caso de necesitar una topografía más detallada se tendrá que concretar lo requerido para que el Ayuntamiento contrate el trabajo topográfico requerido.

Se confeccionará la documentación necesaria con la descripción de los servicios de infraestructura existentes.

Se realizará un estudio completo de los elementos vegetales actuales que incluirá el inventario de todos los árboles y áreas de vegetación, ya sean grupos arbóreos, bosquetes o hábitats de vegetación y un plano topográfico con la ubicación de los mismos. Se

landaredi-eremu bakoitzeko informazioa jasoko da: espezie-barietate mota, ezaugarri fisikoak, balio ekologikoa, diagnostikoa (gutxi gorabeherako adina, egoera fisiologikoa, fitopatologikoa eta biomekanikoa, eta arriskuaren ebaluazioa, hala badagokio).

incluirá la información por cada árbol y área de vegetación: tipo de especie-variedad, características físicas, valor ecológico, diagnosis (edad aproximada, estado fisiológico, fitopatológico y biomecánico y evaluación de riesgo si fuera procedente).

Azkenik, azterlan geotekniko bat eskatuko da, planteatu beharreko konponbideak justifikatzeko oinarri gisa balio dezan. Adjudikaziodunari dagokio horiek zehaztea eta gainbegiratzea, baina Udala arduratuko da kontratatzeaz, proiektugileak ezarritako jarraibide eta definizioei jarraituz.

Por último, se requerirá un estudio geotécnico que sirva de base para justificar las soluciones a plantear, cuya especificación y supervisión corresponderá al adjudicatario, pero que será el Ayuntamiento el encargado de contratar, siguiendo las pautas y definiciones marcadas por el proyectista.

Antolamendua doitzea

Ajuste ordenación

Eremuaren antolamendu orokorra herritarren partaidetza-prozesuaren ondorioetara egokitu beharko da.

La ordenación general del ámbito deberá ajustarse a las conclusiones del proceso de participación ciudadana.

Exekuzio-unitatearen antolamendu orokorrak bide-sarea, aparkalekuak, oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideak jasoko ditu, indarrean dagoen araudira egokituta, eta bereziki kontuan hartuta irisgarritasunaren edo hirigintza-oztopoak kentzearen inguruko araudia.

La ordenación general de la unidad de ejecución contemplará la red viaria, los aparcamientos, los itinerarios peatonales y ciclistas, adaptados a la normativa vigente, teniendo en cuenta especialmente la de accesibilidad o supresión de barreras urbanísticas.

Sareak eta azpiegiturak

Redes e infraestructuras

Beharrezko zerbitzu-sare guztiak dimentsionatu beharko dira: edateko ura, euri-uren eta ur beltzen saneamendua, energia elektrikoa, argiteria publikoa, gasa, semaforoak, ureztatze-sarea eta telekomunikazioak.

Deberán dimensionarse todas las redes de servicio necesarias: agua potable, saneamiento de aguas pluviales y fecales, energía eléctrica, alumbrado público, gas, semáforos, red de riego y telecomunicaciones.

Edateko uraren eta saneamenduaren sareak oinplanoan birplanteatu eta definitu beharko dira, luzetarako profilekin, bai eta korapilo eta kutxatilekin ere.

Las redes de agua potable y saneamiento deberán estar replanteadas y definidas en planta y con sus perfiles longitudinales, así como con sus nudos y arquetas.

Zerbitzuen koordinazio-planoak egin beharko dira, sare guztien gainjarrita, interferentziak saihesteko (lehendik daudenekin eta etorkizunekoekin).

Deberán elaborarse planos de coordinación de servicios en los que se refleje la superposición de todas redes para evitar interferencias (con las existentes y las futuras).

Bete beharreko baldintzak

Condicionantes a cumplir

Udal-zerbitzuek ezarritako irizpideetara egokitu beharko dira urbanizazio-elementu guztiak.

Todos los elementos de urbanización deberán ajustarse a los criterios establecidos por los diferentes servicios municipales.

Zoladurak irisgarritasun-irizpideak kontuan hartu beharko ditu, eta ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako ibilbideak definitu beharko ditu, batez ere oinezkoen pasabideetan eta autobus-markesinetan, eta dagozkien erabaki-esparruen arabera zehaztu beharko dira ibilbide horiek.

La pavimentación deberá tener en cuenta los criterios de accesibilidad y definir los itinerarios para personas con discapacidad visual, fundamentalmente en los pasos de peatones y en las marquesinas de autobuses, estableciendo esos itinerarios a partir de las correspondientes isletas de decisión.

Genero-eraginaren ebaluazioari buruzko atal/txosten bat erantsi behar zaio proiektuari, berrurbanizatze horrek emakumeen eta gizonen errealitatean izango duen eragina jasotzeko, Emakundek "Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa lurralde-plangintzan eta hirigintzan" ezarritako jarrai bideei jarraiki.

Debe incorporarse al proyecto un apartado/informe de evaluación previa de impacto de género, donde se recoja el impacto que va a tener esta reurbanización en la realidad de mujeres y hombres, siguiendo las pautas establecidas por Emakunde en " La evaluación de impacto en función del género en la planificación territorial y el urbanismo".

Berdeguneen tratamenduari edo ingurumen-tratamenduari buruzko kapitulu bat gehitu beharko zaio proiektuari: gaian aditua den teknikari batek diseinatuta egon beharko da, berdegune- eta ureztatze-proposamen batekin eta babes-plan batekin, drainatze jasangarriko hiri-sistemak kudeatzeko plan batekin eta mantentze-plan batekin batera. Berdeguneen edo ingurumen-tratamenduari buruzko memoria, planoak, baldintza-agiria eta aurrekontu espezifikoa jaso beharko ditu kapitulu horrek.

Debe incorporarse al proyecto un capítulo de tratamiento de las zonas verdes o tratamiento medioambiental, diseñado por un técnico especialista en la materia, acompañado de una propuesta de zona verde y de riego y de un plan de protección, de gestión de sistemas urbanos de drenaje sostenible y de mantenimiento. Deberá incluir una memoria, planos, pliego y presupuesto específico al respecto.

Segurtasun eta osasuneko zein hondakinen kudeaketako dokumentuek urbanizazio-obra horietarako espezifikoak izan beharko dute. Horri dagokionez, proiektuak hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legean jasotako arau aurreikuspen guztiak jaso beharko ditu.

Los documentos de Seguridad y Salud, y de Gestión de residuos deberán ser específicos para estas obras de urbanización. A este respecto, el proyecto deberá incorporar la totalidad de las previsiones normativas recogidas en la Ley 7/2022, de residuos y suelos contaminados.

Adjudikazioa egin ondoren eta proiektua idazten hasi aurretik, idatzi beharreko dokumentu guztien aurkibide bat egin beharko da, bai eta planoen zerrenda bat ere, dagozkien eskalekin.

Tras la adjudicación y antes de comenzar la redacción del proyecto se deberá confeccionar un índice de todos los documentos a redactar así como un listado de planos con sus escalas correspondientes.

Aurrekontua egiteko, kontuan hartu beharko da, besteak beste, indarrean dagoen Gipuzkoako eraikuntza esparruko hitzarmena.

Para la confección del presupuesto deberá tenerse en cuenta, entre otros muchos aspectos, el vigente Convenio de la Construcción de Gipuzkoa.

Azkenik, BIM metodologiari jarraituz egin nahi den proiektua denez, lana horretarako eranskinean zehaztutako irizpideei eta baldintzei jarraituz egin behar da («2. eranskina: Olaeta eta Armeria plazak berrurbanizatzeko exekuzio-proiektua BIM

Por último, al tratarse de un proyecto que se quiere confeccionar siguiendo la metodología BIM, el trabajo se tiene que realizar siguiendo los criterios y condiciones especificados en los anexos que se adjuntan para tal fin ("Anexo 2: Condiciones para la

metodologiaren bidez idazteko baldintzak», eta «3. eranskina: BEP. Olaeta eta Armeria plazak berrurbanizatzeko exekuzio-proiektuaren BIM exekuzio-plana».

redacción mediante metodología BIM del proyecto de de ejecución de "Reurbanización de las Plazas de Ferrerías y Armerías" y "Anexo 3: BEP. Plan de ejecución BIM del proyecto de ejecución de "Reurbanización de las Plazas de Ferrerías y Armerías".

2.- DOKUMENTAZIOA

Deskripzio-memoria

- Proiektugileari edo proiektua idatzi duten beste teknikari batzuei buruzko informazioa. Proiektua proiektu partzialen edo bestelako dokumentu teknikoen bidez garatu edo osatzen denean, proiektuaren memorian dokumentu horiek eta haien edukia aipatuko dira, eta proiektugileak, bere koordinaziopean, proiektuan txertatuko ditu, dokumentu bereizi gisa, era horretan, ez dira bikoiztuko, ezta lan desberdinen egileek jaso beharreko ordainsarietan ere. Memoria hau bi hizkuntza ofizialetan aurkeztuko da.

- Abiapuntuko aurrekariak eta baldintzatzaileak, kokalekuaren datuak, ingurune fisikoa, hirigintza-araudia eta, hala badagokio, beste araudi batzuk.

- Egungo egoerari buruzko datuak.

- Beharren, erabilera bereizgarriaren eta aurreikusitako beste erabilera batzuen programaren deskribapen orokorra, baita ingurunearekin duen lotura ere.

- EKTa eta beste araudi espezifiko batzuk, hirigintza-diziplinako arauak, udal-ordenantzak, funtzionaltasuna eta kontratuaren xedeari aplika dakizkiokeen beste arau batzuk betetzea.

- Irtenbide egokituaren geometriaren deskribapena.

- Diseinu-parametroen deskribapen orokorra.

Eraikuntza-memoria

- Lurzoruaren ezaugarrien justifikazioa eta zimenduei dagokien egitura-sistemaren zatia kalkulatzeko kontuan hartu beharreko parametroak.

2.- DOCUMENTACIÓN

Memoria descriptiva

-Información relativa al proyectista u otros técnicos redactores del proyecto. Cuando el proyecto se desarrolle o complete mediante proyectos parciales u otros documentos técnicos, en la memoria del proyecto se hará referencia a éstos y a su contenido, y se integrarán en el proyecto por el proyectista, bajo su coordinación, como documentos diferenciados de tal forma que no se produzca duplicidad de los mismos, ni en los honorarios a percibir por los autores de los distintos trabajos. Esta memoria se presentará en las dos lenguas oficiales.

-Antecedentes y condicionantes de partida, datos del emplazamiento, entorno físico, normativa urbanística y otras normativas, en su caso.

-Datos del estado actual.

-Descripción general del programa de necesidades, uso característico y otros usos previstos, así como su relación con el entorno.

-Cumplimiento del CTE y otras normativas específicas, normas de disciplina urbanística, ordenanzas municipales, funcionalidad y otras normas aplicables al objeto del contrato.

-Descripción de la geometría de la solución adaptada.

-Descripción general de los parámetros de diseño.

Memoria constructiva

-Justificación de las características del suelo y parámetros a considerar para el cálculo de la parte

del sistema estructural correspondiente a la cimentación.

- Abiapuntuko datuak eta hipotesiak, beharren programa, kalkulu-oinarriak, erabilitako prozedurak edo metodoak, eta esku hartzen duten materialen ezaugarriak zehaztea.

-Establecimiento de los datos y las hipótesis de partida, el programa de necesidades, las bases de cálculo y procedimientos o métodos empleados, así como las características de los materiales que intervienen

- Elementuen akaberen ezaugarriak eta preskripzioak adierazi beharko dira, funtzionaltasun-, segurtasun- eta bizigarritasun-baldintzak betetzeko.

-Se indicarán las características y prescripciones de los acabados de los distintos elementos a fin de cumplir los requisitos de funcionalidad, seguridad y habitabilidad.

- Proiektatutako urbanizazio-elementuen eta instalazioen abiapuntuko datuak, bete beharreko helburuak, prestazioak, kalkulu-oinarriak eta eraikuntza-alderdiak adieraziko dira.

-Se indicarán los datos de partida, los objetivos a cumplir, las prestaciones, las bases de cálculo y aspectos constructivos del conjunto de elementos de urbanización e instalaciones proyectadas

- Obrak zehaztu eta justifikatzeko behar beste eranskin jasoko ditu proiektuak (informazio geoteknikoa, egituraren kalkulua, drainatze jasangarriaren eta berdeguneen justifikazioa, 10/2021 Legearen 84. artikulua betetzearen justifikazioa, energia-efizientzia, ingurumen-inpaktuaren azterketa, kalitate-kontrolerako plana, segurtasun- eta osasun-azterlana edo oinarrizko azterlana, hala badagokio, hondakinen kudeaketari buruzko azterlana eta genero-inpaktuaren inguruko txostena duen eranskina). Proiektuak hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 7/2022 Legean jasotako arau-aurreikuspen guztiak jaso beharko ditu.

-El proyecto contendrá tantos anejos como sean necesarios para la definición y justificación de las obras (Información geotécnica, Cálculo de la estructura, Justificación Drenaje Sostenible y Zonas Verdes, Justificación artículo 84 Ley 10/2021, Eficiencia energética, Estudio de impacto ambiental, Plan de control de calidad Estudio de Seguridad y Salud o Estudio Básico, en su caso, Estudio de Gestión de Residuos y Anejo que contenga Informe de impacto de género). El proyecto deberá incorporar la totalidad de las previsiones normativas recogidas en la Ley 7/2022, de residuos y suelos contaminados.

Hondakinak kudeatzeko idatziko den dokumentuak berekin ekarri beharko du egin beharreko jarduketak garatzean sor daitezkeen hondakin ez-arriskutsuen % 70, gutxienez, berrerabiltzea, birziklatzea edo balorizatzea.

El documento de Gestión de Residuos que se redacte deberán conllevar la reutilización, reciclaje o valorización de, al menos, un 70 % de los residuos no peligrosos que puedan generarse en el desarrollo de las actuaciones a acometer.

<u>Planoak</u>

<u>Planos</u>

- Obrak xehetasunez definitzeko behar adina plano izango ditu proiektuak.

-El proyecto contendrá tantos planos como sean necesarios para la definición en detalle de las obras.

- Kokapen-planoa

-Plano de situación

- Kokapen-planoa, indarrean dagoen plangintzari dagokiona, non egon daitezkeen eta iparralde geografikoa adierazita.

-Plano de emplazamiento referido al planeamiento vigente, con referencia a puntos localizables y con indicación del norte geográfico.

- Kapitulu bakoitzerako eta berrurbanizazio osorako oinplano orokorrak.

-Plantas generales para cada capítulo y para el conjunto de la reurbanización.

- Instalazioen planoak, instalazio bakoitzeko sareen deskribapen grafikoarekin eta dimentsioekin.

-Planos de instalaciones con la descripción gráfica y dimensional de las redes de cada instalación.

- Eraikuntza-xehetasunen dokumentazio grafikoa duten planoak, irtenbide zehatzak adierazita.

-Planos con documentación gráfica de detalles constructivos, indicando las soluciones concretas.

Baldintza-agiria

Pliego de condiciones

- Administrazio-klausulen agiria

-Pliego de cláusulas administrativas

- Xedapen orokorrak.

-Disposiciones generales

- Aukerako xedapenak.

-Disposiciones facultativas

- Xedapen ekonomikoak.

-Disposiciones económicas

- Baldintza tekniko partikularren agiria.

-Pliego de condiciones técnicas particulares.

- Materialei buruzko preskripzioak: obrei gehituko zaizkien produktuek, ekipoek eta sistemek bete behar dituzten gutxieneko ezaugarri teknikoak, bai eta haien hornidura-, harrera-, kontserbazio-, biltegiratze- eta manipulazio-baldintzak, kalitate-bermeak eta egin beharreko harrera-kontrola, barnean hartuta produktuaren laginketa, egin beharreko saiakuntzak, onartzeko eta baztertzeko irizpideak, eta adostu beharreko jarduketak eta erabilera-, kontserbazio- eta mantentze-irizpideak. Zehaztapen horiek egiteko, kontuan har daitezke aplikatzekoak diren baldintza-agiri orokorrak, dokumentu aitortuak edo proiektugilearen iritziz baliozkoak diren beste batzuk.

-Prescripciones sobre los materiales: características técnicas mínimas que deben reunir los productos, equipos y sistemas que se incorporen a las obras, así como sus condiciones de suministro, recepción y conservación, almacenamiento y manipulación, las garantías de calidad y el control de recepción que deba realizarse incluyendo el muestreo del producto, los ensayos a realizar, los criterios de aceptación y rechazo, y las acciones a adoptar y los criterios de uso, conservación y mantenimiento. Estas especificaciones se pueden hacer por referencia a pliegos generales que sean de aplicación, Documentos Reconocidos u otros que sean válidas a juicio del proyectista.

- Obra-unitateen exekuzioari buruzko preskripzioak: obra-unitate bakoitzaren ezaugarri teknikoak, exekuzio edo gauzatze-prozesua adierazita, aplikazio-arauak, egin aurretik bete beharreko aurretiazko baldintzak, perdoi onargarriak; amaitzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko baldintzak; exekuzio-kontrola, saiakuntzak eta probak, kalitate-bermeak, onartzeko eta baztertzeko irizpideak, unitateak neurtu eta baloratzeko irizpideak, eta abar. Produktuen, elementuen eta eraikuntza-sistemen arteko bateragarritasuna ziurtatzeko neurriak zehaztu beharko dira.

-Prescripciones en cuanto a la ejecución por unidades de obra: características técnicas de cada unidad de obra indicando su proceso de ejecución, normas de aplicación, condiciones previas que han de cumplirse antes de su realización, tolerancias admisibles, condiciones de terminación, conservación y mantenimiento, control de ejecución, ensayos y pruebas, garantías de calidad, criterios de aceptación y rechazo, criterios de medición y valoración de unidades, etc. Se precisarán las medidas para asegurar la compatibilidad entre los diferentes productos, elementos y sistemas constructivos.

- Amaitutako eraikineko egiaztapenei buruzko preskripzioak: Eraikinaren azken prestazioak egiaztatzeko egin behar diren egiaztapenak eta zerbitzu- probak adieraziko dira.

-Prescripciones sobre verificaciones en el edificio terminado: Se indicarán las verificaciones y pruebas de servicio que deban realizarse para comprobar las prestaciones finales del edificio.

Neurketak eta aurrekontua

Aurrekontu xehatua: prezioen taula, kapituluka taldekatuta – kapituluen araberako laburpena, exekuzioaren eta kontrataren azken balioa adierazita. Kalitate-kontrolaren aurrekontua jaso beharko du. Segurtasun eta Osasun Azterlanaren aurrekontua.

Gipuzkoa mailan indarrean dagoen Eraikuntzako Hitzarmen Kolektibotik aurrera zenbatetsitako soldata-kostuak banakatuta jaso beharko ditu, dagozkien lanbide-kategoriak adierazita.

Mediciones y presupuesto

Presupuesto detallado: cuadro de precios agrupado por capítulos - Resumen por capítulos, con expresión del valor final de ejecución y contrata. Incluirá el presupuesto del control de calidad. Presupuesto del Estudio de Seguridad y Salud.

Deberá contener de forma desglosada los costes salariales estimados a partir del vigente Convenio Colectivo de la Construcción de Gipuzkoa con indicación de las correspondientes categorías profesionales.

3.- TALDE ADJUDIKAZIODUNAREN EGINKIZUNAK ETA BETEBEHARRAK

Adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du proiektua idazteko, betiere eraikuntza onaren arau orokorren arabera, eta bete egingo ditu arlo profesionalean eta urbanizazioaren arloan indarrean dauden legezko edo erregelamenduzko xedapenek ezarritako betebeharrak, bai eta administrazio-klausula partikularren agirian eta haren ezaugarrien taulan jasotakoak ere.

Proiektua idazteko lanak antolatu eta garatzeko, honako lan hauek egin beharko ditu, besteak beste:

Proiektuaren prestaketa antolatzea eta kontratuaren arduradunak emandako aginduak interpretatu eta praktikan jartzea.

Espezialisten jarduera teknikoak zuzendu, koordinatu eta planifikatzea, proiektua egiten den bitartean haien artean beharrezko koordinazioa egon dadin, proiektua eranskinen multzo lotu gabea izan ez dadin, haien arteko beharrezko loturarik gabe. Egileak sinatu eta ikus-onetsiko du proiektua, haren arduraduna den aldetik, baina aipatzen diren gaietako bakoitzean ardura duten espezialistek sinatuko dituzte eranskinak.

3.- FUNCIONES Y OBLIGACIONES DEL EQUIPO ADJUDICATARIO

La adjudicataria se compromete a llevar a cabo la redacción del proyecto, de acuerdo con las normas generales de buena construcción, dando cumplimiento a las obligaciones establecidas por las disposiciones legales o reglamentarias vigentes en materia profesional y urbanización, así como las contenidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, su cuadro de características.

Para organizar y desarrollar los trabajos de redacción del proyecto, deberá asumir, entre otras, las tareas siguientes:

Organizar la elaboración del proyecto e interpretar y poner en práctica las órdenes recibidas del Responsable del Contrato.

Dirigir, coordinar y planificar las actividades técnicas de los distintos especialistas, de forma que durante la elaboración del proyecto se produzcan la coordinación necesaria entre ellos, evitando que el proyecto resulte un conjunto inconexo de anejos sin las necesarias interrelaciones entre ellos. El Proyecto lo firmará y visará el autor/a como responsable del mismo, si bien los correspondientes anejos serán suscritos por los respectivos especialistas responsables en cada una de las materias a las que

se haga referencia.

Proiektua idazten den bitartean, udal-arduradunekin egiten diren jarraipen bileretara joatea. Talde adjudikaziodunak Udal Zerbitzu Teknikoarekin kontrastatu behar ditu proposatutako konponbideak, eta, horretarako, jarraipen-bilerak egingo dira astero, edo, bestela, proiektuaren definizioan zehaztutako aurrerapenaren arabera erabakitzen den aldizkakotasunarekin. Gainera, diagnostiko fasean eta partaidetza-prozesuaren proposamen fasean dauden bilerak koordinatu ahal izango dira.

Asistir a las reuniones de seguimiento con los responsables municipales mientras se redacta el proyecto, el equipo adjudicatario debe contrastar las soluciones propuestas con el Servicio Técnico Municipal, para lo que se realizarán reuniones de seguimiento con una periodicidad semanal, o con la periodicidad que se acuerde según el avance en la definición del proyecto. Además de las reuniones en fase de diagnóstico y fase propositiva del proceso participativa que podrán coordinarse.

Arduradun bat izendatzea, Udalaren aurrean adjudikaziodunaren ordezkari izan dadin zerbitzuari dagokion guztian eta lanen koordinazio egokia bermatzeko. Pertsona hori kontratuari atxikitako gutxieneko teknikarietako bat izango da.

Nombrar a una persona responsable, a fin de que la represente ante el Ayuntamiento en todo lo concerniente al servicio y para asegurar una perfecta coordinación de los diferentes trabajos. Esta persona formará parte del personal técnico mínimo adscrito al contrato.

Jarraipen-bileren akta egitea, bertaratuek sinatuta, eta gai garrantzitsuenak eta hurrengo bileren datak jasotzea bertan.

Levantar acta de las reuniones de seguimiento, firmándose por los asistentes, y reflejando los temas más importantes y la fecha de las próximas reuniones.

4.- ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOAREN FORMATUA

Kontratu honen adjudikaziodunak ezarritako epean aurkeztu beharko du eskatutako proiektua Udalaren web-orriko erregistro orokorrean. Euskarri informatikoa bateragarria izango da Word, Excel, Presto eta Autocad formatuekin, eta dokumentazio osoaren kopia bat entregatu beharko da *.pdf. formatuan.

Fitxategi grafikoak formatu *.pdf editagarrian (eskaneatu gabe) eta *.dwg formatuan entregatu beharko dira. Azken formatu horretan, inprimaketa-txantiloiak eta entregatutako planoen kopiak inprimatzeko beharrezko geruzen aurkezpenak eta antolamendua txertatu beharko dira.

Era berean, dokumentazio grafikoa aurkeztu beharko da, proiektuan jasotako obren dibulgazioa egin ahal izateko. Zehazki, proposamenaren bi infografia aurkeztu beharko dira 3D ereduan eta *.jpg eta *.pdf formatuan.

4.- FORMATO DE LA DOCUMENTACIÓN A ENTREGAR

Quien resulte adjudicatario del presente contrato, deberá presentar en el plazo estipulado el proyecto solicitado en el registro general de la página web municipal. El soporte informático será compatible con los formatos Word, Excel, Presto, y Autocad, y se entregará una copia de la documentación completa en formato *.pdf.

Los archivos gráficos se entregarán en formato *.pdf editable (no escaneado) y en formato *.dwg, incluyendo para este último formato tanto las plantillas de impresión como las presentaciones y organización de las capas necesarias para la impresión de copias de los planos entregados.

Igualmente, se deberán presentar documentación gráfica que permita la divulgación de las obras contenidas en el proyecto. Concretamente, se deberán presentar dos infografías en modelo 3D y en formato *.jpg y *.pdf de la propuesta.

5.- PROIEKTUEN JABETZA

5.- PROPIEDAD DE LOS PROYECTOS

Kontratu hau gauzatzean egin daitekeen dokumentazioa Donostiako Udalarena baino ez da izango. Udalak dokumentazio hori kopiatu, argitaratu eta zabaldu ahal izango du, osorik edo zati batean, egoki irizten dion neurrian, eta enpresa adjudikaziodunaren egiletza adierazi beharko du.

La documentación que se pueda elaborar en ejecución del presente contrato será propiedad exclusiva del Ayuntamiento de San Sebastián, quien podrá reproducirla, publicarla y divulgarla total o parcialmente en la medida que tenga por conveniente, haciendo constar la autoría de la empresa adjudicataria.

SPKLren 308. artikuluaren arabera, jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide batek babestutako produktuak garatzea eta eskura jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori administrazio kontratatzaileari lagatzea.

De conformidad con el art. 308 de la LCSP, los contratos de servicios que tengan por objeto el desarrollo y la puesta a disposición de productos protegidos por un derecho de propiedad intelectual o industrial llevarán aparejada la cesión de este a la Administración contratante.

Hori dela eta, kontratu honen adjudikaziodunak azterlan hori ustiatzeko dituen eskubide guztiak Udalaren esku uzten ditu esklusiboki, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta SPKLren 308. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Por ello la adjudicataria del presente contrato cede en exclusiva todos sus derechos de explotación del referido estudio a favor del Ayuntamiento, de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto Legislativo 1/1996, de 12 de Abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Propiedad Intelectual y el art. 308 de la LCSP.

Hori guztia kontuan hartuta, Udalak finkatutako zerbitzu-sariak entregatu, gainbegiratu, jaso eta ordaindu ondoren, exekuzio-proiektuan eta haren balizko aldaketetan jasotako dokumentazio guztia Udalaren jabetzakotzat hartuko da, eta Udalak eskubidea izango du zerbitzu-sari horiek aldatu, egokitu edo osatzeko, beharrezkoa jotzen duen moduan, une bakoitzean sor daitezkeen eskakizunak betetze aldera.

En base a lo anterior, toda la documentación, incluida en el proyecto de ejecución y sus posibles modificaciones, una vez entregados, supervisados, recibidos y abonados los honorarios fijados por el Ayuntamiento se entenderán propiedad de éste, quien tendrá la facultad de modificarlos, adaptarlos o complementarlos en aquellos aspectos que considere necesarios, con el fin de dar cumplimiento a la exigencias que en cada momento puedan suscitarse.

Donostian, sinaduren egunean

Proiektu eta Obretako zuzendaria

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Miren Nekane Arzallus Iturriza (08/04/2025 13:21 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : A4WQ-R93U-KR1F-IBC3